

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Amancio Ortega Fundazioak protokoloa sinatu dute osasun publikoan azken generazioko ekipo berriak sartzeko, minbiziaren diagnostiko eta tratamendurako

Programaren aurrekontua 5,7 milioi eurokoa da, eta Fundazioa egingo da horren kargu. Erradioterapiarako azeleragailu lineala, barne erradioterapiarako ekipoa (brakiterapia), bi eskaner eta mamografo digitala jarriko dira Nafarroako Ospitale Gunean.

Ostirala, 2017.eko martxoak 31

Nafarroako Gobernuo lehendakaria den Uxue Barkosek eta Amancio Ortega Fundazioaren presidenteordea den Flora Pérezek protokoloa sinatu dute gaur Iruñean, eta, protokolo horri esker, minbiziaren diagnostiko eta tratamendurako azken generazioko ekipoak erosi ahal izango dira Nafarroako Ospitale gunean, datozen bi urteetan zehar.



Barkos lehendakaria eta Fundazioaren presidenteordea protokoloa sinatu ondoren.

Zehazki, erradioterapiarako azeleragailu lineala eta brakiterapia ekipoa instalatzea aurreikusten da, tratamenduak eraginkorragoak eta seguruagoak izan, iraupena murriztu eta Nafarroako herritarrentzat erosoagoak egite aldera. Gainera, bi eskaner erosi dira tratamendu erradioterapikoaren plangintza hobetzeko eta mamografo digital bat eraginkortasun diagnostikoa gehitzeko.

Proiektuaren aurrekontua 5,7 milioi euro ingurukoa da. Era horretan, Nafarroak izango duen maila teknologikoa onkologia erradioterapikoaren arloan Europan erreferentziazkoak diren zentroetakoarekin alderatu ahal izango da. Halaber, berrikuntza teknologiko horren bitartez, Foru Erkidegoak bete ahal izango ditu kalitate eta segurtasun mailako protokoloak, 2018an indarrean sartuko den europar esparruaren eskakizunen arabera.

Amancio Ortega Fundazioak (FAO), hezkuntzan eta gizarte ongizatean bere programak garatzeaz gain, beste instituzio batzuekin lankidetzak burutzen ditu gizarteari eremu ezberdinetan aurrera egiten laguntzeko proiektuak garatzearen. Nafarroari dagokionean, erakundeak protokolo honetan parte hartu du Osasun Departamentuak gaixo onkologikoen arreta, bereziki erradioterapiaren aplikazioan, hobetzerantz bideratutako beharrezko jarduerak zehazteko egin duen analisia ezagutu eta gero.



Fundazioaren ordezkariak, Osasuneko eta minbiziaren arlo kliniketako arduradunak.

Protokoloa sinatzeko ekitaldian honako hauek izan dira: Osasun kontseilaria, Fernando Domínguez; José Arnau, Amancio Ortega Fundazioaren nagusia; Fundazioaren zuzendari nagusia, Óscar Ortega; Osasuneko zuzendari nagusia, Luis Gabilondo; CHNko kudeatzailea, Antonio Merino; onkologia erradioterapikoko arduraduna, Enrique Martínez, onkologia medikoko arduraduna, Ruth Vera, erradiofisikoko eta babes erradiologikoko arduraduna, Anastasio Rubio, eta erradiologiako arduraduna, Luis Miranda, nahiz CHN-ko beste profesional batzuk (Santiago Pellejero, erradiofisika eta babes erradiologikokoa; Elena Villafranca, onkologia erradioterapikokoa; Nieves Moreno eta Andrés Ballesteros, erradioterapia, erradiofisika eta medikuntza nuklearraren unitatekoa; Pedro Armendáriz, bularreko kirurgiako unitate klinikokoa; Milagros García, I erradiodiagnostikoaren unitatekoa; eta Maite Mellado, bularreko erradiologiaren atalekoa).

Protokoloaren garapena

Urtero nabarmen gehitzen da erradioterapiarekin tratatutako gaixoen kopurua, eta datozen 10 urtetan eskaera %20ra bitarte igotzea espero da. Kalkulatzen da minbizirik sendatutako gaixo guztien gutxienez %40ak erradioterapia jaso duela tratamenduaren barruan.

Halaber, uste da Nafarroan bizi diren hiru gizonezkoetatik bati eta bost emakumezkoetatik bati minbizia diagnostikatuko zaiola 75 urte egin baino lehen. Urtero, minbiziaren 4.400 kasu berri erregistratzen dira, Nafarroako Minbiziaren Erregistroak argitaratutako azken datuen arabera, eta horietatik %60ak erradioterapia jaso beharko du gaixotasunean zehar, terapia onkologikoaren zati gisa. Horietatik %20-25ak tratamendu erradioterapikoaren zikloak jaso beharko dituzte bilakaeran zehar behin baino gehiagotan.

Nafarroako Osasun Zerbitzuan-Osasunbidean, erradioterapia tratamenduak Nafarroako Ospitale Gunean egingo dira; bertan, hiru azeleragailu lineal daude, urtero 30.000 tratamendu-saio inguru egiten dituztenak. Horrez gain, brakiterapia unitate bat dago, urtean 500 prozeduratik gora egiten dituenak, eta erradiokirofano bat. Kanpoko erradioterapia tratamenduak planifikatzeko, eskaner simulatzaile bat dago.

Gaur sinatutako akordioari esker, elektroien azeleragailu berri bat erosi ahal izango da; horrek barruan azken urteetan garatzen joan diren teknologia berriak ditu, une honetan NOG-an ez daudenak. Modu horretan, berrikuntza teknologiko horien bitartez, tratamenduen eraginkortasuna eta segurtasuna gehitu ahal izango da, iraupena murriztu eta Nafarroako herritarrentzat erosoagoak egitearekin batera. Ildo horretan, azeleragailu berriak erradiazioa maximizatzen du tumorean, eta, aldi berean, inguruko ehun osasuntsuak horren eraginpean jartzea gutxiagotzen du. Gainera, erabateko segurtasunarekin erabil daiteke gaixo pediatrikoetan. Teknologia berria, Arkoterapia deitzen dena, batez ere buruko, lepoko, eremu ginekologikoko eta hezurretako tumoreetan erabiltzen da. Eremu anatomiko konplexuetan edo tratamenduaren zehaztapen handia eskatzen duten organo kritikoetatik gertu kokatutako tumoreetan erabiltzea aholkatzen da.

Horrez gain, azeleragailu berriari esker, adierazpen erradiokirurgikoak eraman ahal izango dira

haurren tumoreetara eta tumorezkoak ez diren beste gaixotasunetara. Era berean, lau azeleragailu lineal edukita, NOG-ek hobetu ahal izango du Nafarroako geografiako beste puntu batzuetatik joaten diren gaixoen irisgarritasuna.

Protokoloaren arabera, datorren urtean brakiterapiako ekipo berria erosiko da, 10 urtetik gorako lana egin duen egungoa ordezkatzeko duena, eta gaur egun tratatzen diren minbizi-motak ez bezalakoak ere tratatu ahal izango dira.

Tratamendu erradioterapikoaren plangintza hobetzeko asmoarekin, egungo eskaner simulatzailea ere berrituko da, eta bigarren eskaner bat erosiko da 2D eta 3D irudietarako, brakiterapiarako.

Azkenik, protokoloan esaten da mamografo digitala erosi eta abian jarriko dela tomosintesi eta irudi sintetizatuarekin; egun, NOG-an bi ekipo daude. Mamografo berriak zehaztaperen diagnostiko handiagoa emango du, batez ere gaixo gazteetan, 3D irudiak emango dituelako; gainera, gaixoentzat erosoagoa izango da, antsietate handia eragiten duten miaketa osagarriak berriro egin beharrik izango ez delako.

Erradioterapia

Erradioterapia tratamendu onkologikoaren oinarritzko zutabeetariko bat da. Tratamendua lokala edo toki-eskualde mailakoa da soilik; hau da, minbizia bere lekuan tratatzen du. Gaixotasuna sendatzen du, mutilazioak saihesten ditu eta gaixotasun metastasikoa kronifikatzen laguntzen du.

Biztanleriaren zahartzea medio, erradioterapia-premiak areagotuko dira, minbiziaren eragina gehitzeagatik. Gehitze hori handiagoa izango da gaixo zaharrak beste modalitate batzuekin tratatzea ezinezkoa izango delako; esate baterako, kirurgiarekin edo kimioterapiarekin, horiek kontraindikatuak izan baitaitezke beste gaixotasun batzuk ere izateagatik. Erradioterapia, testuinguru horretan, ondo hartzen den tratamendua da.

Erradiazio administratzeko moduaren arabera, bi erradioterapia-mota bereiz daitezke: kanpoko eta barnekoa. Kanpoko erradioterapiaren, erradiazioak tamaina handiko makinek sortzen eta ematen dituzte, zehaztaperen oso handiko tratamenduak egiteko gai direnek: azeleragailu lineala. Barne erradioterapiari dagokionean, "brakiterapia" bezala ere ezagutzen dena, irradiazio-teknika erabiltzen da, eta iturria tumorearekin zuzenean jartzen du harremanetan.

Nafarroako Plan Onkologikoa

2001eko ekainean, Nafarroako Plan Onkologikoa onartu zen, eta horren esparruan Protokoloak egiteaz gain, Minbiziaren Susmo Sendoko Zirkuitu Azkarrak abian jarri eta Diziiplina anitzeko Tumoreen Batzordeak sortu ziren. Modu horretan, erantzun egokia eman zitzaion arreta onkologikoari, gaixoa osorik artatzeko helburuari lehentasuna emanaz, gaixoa erdigunean kokatuaz, arreta pertsonalizatuaz eta baliabideen eraginkortasuna hobetuaz.

Bestalde, detekzio goiztiarra Osasun Departamentuak minbiziaren aurkako borrokan duen beste lehentasunezko ardatza da, prebentzio-programak abian jartzearekin eta bizitza osasungarriaren estiloak sustatzearekin batera, gaixotasun hori agertzeko arriskua murriztearren. Ildo horretan, bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programak ezarri dira urte hauetan zehar, arreta onkologikoan erantzuna hobetu ahal izanaz.

Nafarroan minbiziaren 4.400 kasu berri erregistratzen dira urtean, Nafarroako Minbiziaren Erregistroak argitaratutako azken datuen arabera. Kasuen %59 gizonetzkoengan diagnostikatu ziren eta % 41 emakumezkoengan.

Gizonetzkoetan ohikoenak diren minbizi-motak honako hauetakoak dira: prostata, kolon eta ondestea, birika, maskuria eta urdaila (kasu guztien %65). Emakumezkoetan, berriz, aipatzekoak dira bularrekoa, kolon eta ondestekoa, gorputz uterinokoa, birikakoa, tiroide eta urdailekoa (diagnostikatutakoen %61).

Galería de fotos



Uxue Barkos eta Flora Pérez hitzarmena sinatzen.



Oscar Ortigaren, Fundazioaren zuzendari nagusiaren, hitzaldia.



Barkos lehendakariaren esku-hartzea.